DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ondarea
Patrimonio

## AURKIBIDEA / ÍNDICE


| | GAIA | Orria |
|---|---|---|
| 1 | **Zer da Udalaren ondarearen gaineko erantzukizuna?**<br>¿Qué es la responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento? | 2 |
| 2 | **Zeinek eska dezake ondarearen gaineko erantzukizuna?**<br>¿Quién puede solicitar responsabilidad patrimonial? | 2 |
| 3 | **Zein epe dago Udalari ondarearen gaineko erantzukizunarengatiko kalte-ordaina eskatzeko?**<br>¿Cuál es el plazo para ejercitar la acción de responsabilidad patrimonial? | 2 |
| 4 | **Zein baldintza bete behar du kalteak kalte-ordaina jaso ahal izateko?**<br>¿Qué requisitos ha de reunir el daño para que sea objeto de indemnización? | 2 |
| 5 | **Zer egin behar dut administrazioaren erantzukizuna eskatzeko?**<br>¿Qué tengo que hacer para solicitar la responsabilidad de la Administración? | 2 |
| 6 | **Zer egin behar dut balioztapena erreklamazioarekin batera aurkezterik ez badut?**<br>¿Qué debo hacer si no puedo presentar la valoración económica junto con la reclamación? | 3 |
| 7 | **Zer dira gorputzeko lesioak eta nola justifikatzen dira?**<br>¿Qué son las lesiones corporales y cómo se justifican? | 3 |
| 8 | **Zer da kalte-ordainik jaso ez izanaren zinpeko deklarazioa?**<br>¿Qué es una declaración jurada de no haber sido indemnizado/a? | 4 |
| 9 | **Zer da lekukoen adierazpena (I. Eranskina)?**<br>¿Qué es una declaración de testigos (Anexo I)? | 4 |
| 10 | **Zer da kausalitate erlazioa?**<br>¿Qué es la relación de causalidad? | 5 |
| 11 | **Nola izapidetzen da eskaera?**<br>¿Cómo se tramita mi solicitud? | 5 |
| 12 | **Zertan datza dokumentazio-errekerimenduak?**<br>¿En qué consiste un requerimiento de documentación? | 5 |
| 13 | **Zertan datza interesdunari entzunaldia emateko izapideak?**<br>¿En qué consiste un trámite de audiencia a la parte interesada? | 5 |
| 14 | **Noiz ematen zaie entzunaldia inplikatutako enpresei?**<br>¿Cuándo se les da audiencia a las empresas implicadas? | 6 |
| 15 | **Nola bukatzen da prozesua?**<br>¿Cómo finaliza el proceso? | 6 |
| 16 | **Zergatik ezetsi litezke ondare-erantzukizuneko erreklamazioak?**<br>¿Por qué motivos podrían desestimarse las reclamaciones de responsabilidad patrimonial? | 6 |
| 17 | **Ebazpena emateko gehienezko eperik ba al dago?**<br>¿Hay un plazo máximo para resolver? | 6 |


13716n II

### 1. Zer da Udalaren ondarearen gaineko erantzukizuna?

Udal zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz pertsona fisiko edo juridikoren bati juridikoki zertan jasan ez duen lesio edo kalterik eraginez gero Udalari dagokion erantzukizuna da, betiere tartean ezinbesteko arrazoirik egon ez bada.

### 2. Zeinek eska dezake ondarearen gaineko erantzukizuna?

Udalaren zerbitzu publiko baten funtzionamenduaren ondorioz bere ondasun eta eskubideetan kalteren bat izan duten pertsona fisiko edo juridikoak.

### 3. Zein epe dago Udalari ondarearen gaineko erantzukizunarengatiko kalte-ordaina eskatzeko?

Urtebete, kalteak gertatzen direnetik kontatuta. Pertsonei kalte fisiko edo psikikoak eginez gero, sendatzen direnetik edo kalte horien ondorioak zehazten diren egunetik hasiko da kontatzen epea (medikuaren alta eta/edo sekuelak dagokion txosten medikoaren bidez egiaztatu beharko dira).

### 4. Zein baldintza bete behar du kalteak kalte-ordaina jaso ahal izateko?

Kalteak zehatza izan behar du, egiaztagarria, diru aldetik balioztagarria, eta pertsona edo pertsona-talde batera mugatua.

Hainbat kalterengatik ezin da kalte-ordainik jaso:

- Kalteak partikularren utzikeria edo arduragabekeriak eraginak badira
- Hirugarrenek parte hartu badute
- Ordenamendu juridikoak justifikatzen baditu edo gizarte tolerantziaren mugen barruan badaude
- Ezin da kalte-ordainik jaso kalteak gertatzen direnean une horretako zientziaz zein teknikaz baliatuz ezin baziren aurretiaz ikusi edo saihestu

### 5. Zer egin behar dut administrazioaren erantzukizuna eskatzeko?

Bi modu daude eskaera hasteko:

a) Online: kasu honetan, interesdunak ziurtagiri elektroniko bat behar du identifikatu eta estekako web formulario honetara sartzeko:

### 1. ¿Qué es la responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento?

Es la responsabilidad que el Ayuntamiento asume cuando, por consecuencia del funcionamiento de los servicios públicos municipales, se causan daños o lesiones a una persona física o jurídica que no tenga el deber jurídico de soportar, siempre que no se trate de un supuesto de fuerza mayor.

### 2. ¿Quién puede solicitar responsabilidad patrimonial?

Las personas físicas o jurídicas que hayan sufrido una lesión o daño en cualquiera de sus bienes o derechos, consecuencia del funcionamiento del servicio público municipal.

### 3. ¿Cuál es el plazo para ejercitar la acción de responsabilidad patrimonial?

1 año desde que se produzcan los daños.
En el caso de daños de carácter físico o psíquico a las personas, el plazo empieza desde la curación o la determinación del alcance de las secuelas (el alta médica y/o secuelas deberán ser acreditadas mediante el informe médico correspondiente).

### 4. ¿Qué requisitos ha de reunir el daño para que sea objeto de indemnización?

El daño ha de ser efectivo, verificable, evaluable económicamente e individualizado respecto de persona o grupo de personas.

No son indemnizables:

- Los daños derivados de negligencia o descuido del particular
- Los derivados de la intervención de un tercero
- Aquellos que se justifiquen por el ordenamiento jurídico o se encuentren dentro de los márgenes de tolerancia social
- Aquellos daños o lesiones cuyo origen no se hubiera podido prever según el estado de la tecnología o ciencia existentes en el momento de su producción

### 5. ¿Qué tengo que hacer para solicitar la responsabilidad de la Administración?

Hay dos modos de iniciar la solicitud:

a) Online: en este caso, la persona interesada necesita un certificado electrónico para identificarse y acceder al siguiente formulario web:

donostia.eus/Tramiteak/Udalari ondarearen gaineko erantzukizunagatiko kalteak erreklamatzea/Telematikoki/Hasi

b) Aurrez aurre: prozedura abian jartzeko, interesdunak definitutako eskaera-orria erabili behar du nahitaez. Eskaera-eredua webguneko hurrengo estekan dago eskuragarri:

donostia.eus/Tramiteak/Udalari ondarearen gaineko erantzukizunagatiko kalteak erreklamatzea/Dokumentuak/Eskaera

Nahitaezko eskaera-eredua beteta, dagozkion eranskin eta dokumentazioarekin batera, fisikoki aurkeztu behar da Udalinfoko bulegoetan.

Garrantzitsua da nahitaezko eskaera eta dagozkion eranskinak behar bezala betetzea, eta adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztea. Bestelakoan, eskaera zuzentzeko eskatuko da.

### 6. Zer egin behar dut balorazio ekonomikoa erreklamazioarekin batera aurkeztu ezin badut?

Ondare-erantzukizuneko prozedura erregulatzen duen arauak dioenez, kalteen balorazio ekonomikoa aurkeztu behar du erreklamatzaileak; beraz, eskaerarekin batera aurkeztu ezin badu, **zenbatekoaren zenbatespena egin beharko du**, eta, behin betiko balorazioa egindakoan, hura aurkeztu.

### 7. Zer dira gorputzeko lesioak eta nola justifikatzen dira?

Gorputzeko kaltea edo galera.

Gorputzeko lesioak (eskaera orriko A.1 atala) aldi baterako lesioetan eta ondorioetan bereizten dira.

**A.1 Aldi baterako lesioak:**

Gorputzeko lesioak dira istripua gertatu zenetik, istripua izandako pertsonak sendatzeko prozesua amaitu arte edo lesioa egonkortu eta hura sekuela bihurtu arte izaten dituenak.

Honako hauek izan daitezke:

- Oinarrizko kalte pertsonala:
  istripua gertatu zenetik, istripua izandako pertsonak sendatzeko prozesua amaitu arte edo lesioa egonkortu eta hura sekuela bihurtu arte izaten duena.

- Kalte pertsonal partikularra:
  Bizi-kalitatea aldi baterako galtzeagatiko

donostia.eus/Trámites/Reclamación de daños por responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento/Telématico/Comenzar

b) Presencialmente: para iniciar el procedimiento, la persona interesada está obligada a utilizar la hoja de solicitud especificada. El modelo de solicitud se puede descargar desde la web:

donostia.eus/Trámites/Reclamación de daños por responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento/Documentos/Solicitud

La solicitud cumplimentada, junto con los anexos y documentación correspondiente, se presenta físicamente en Udalinfo.

Es importante cumplimentar adecuadamente el modelo de solicitud obligatorio y los anexos correspondientes, y acompañarla de la documentación que se indica. En caso contrario, se le requerirá la subsanación de la solicitud.

### 6. ¿Qué debo hacer si no puedo presentar la valoración económica junto con la reclamación?

La norma que regula el procedimiento de responsabilidad patrimonial, establece la obligación de la persona reclamante de aportar la valoración económica de los daños, por lo que, si no pudiera aportarla junto a la solicitud, deberá **realizar una estimación de la cuantía**, y una vez tenga la valoración definitiva, deberá presentarla.

### 7. ¿Qué son las lesiones corporales y cómo se justifican ?

Daño o detrimento corporal.

Las lesiones corporales (apartado A.1 de la solicitud) se dividen en lesiones temporales y secuelas.

**A.1 Lesiones temporales:**

Son lesiones corporales las que sufre la persona lesionada desde el momento del accidente hasta el final del proceso curativo o hasta la estabilización de la lesión y su conversión en secuela.
Pueden ser:

- Perjuicio personal básico:
  es el perjuicio común que se padece desde la fecha del accidente hasta el final del proceso curativo o hasta la estabilización de la lesión y su conversión en secuela.

- Perjuicio personal particular:
  Perjuicio personal por pérdida temporal de

kalte pertsonala: Bizi-kalitatea aldi baterako galtzeagatiko kalte-ordainak konpentsatu egiten du biktimak jasaten duen kalte moral partikularra, jasandako lesioek edo haien tratamenduak bere autonomian edo garapen pertsonalean eragiten duten eragozpenagatik edo mugapenagatik.
Bizi-kalitatea aldi baterako galtzeagatiko kalte pertsonalaren mailak hauek izan daitezke:

- Oso larria
- Larria
- Ertaina

**A.2 Ondorioak:**

Ondorioak dira prozesua amaitzean oraindik irauten duten urritasun fisikoak, intelektualak, organikoak, sentsorialak eta kalte estetikoak.

Ondorioak txosten medikoen arabera zehaztutako puntuazioaren arabera sailkatuko dira. Alde batetik, oinarrizko kalte pertsonalak daude, eta, bestetik, kalte pertsonal partikular eta ezohikoa.

Honela justifikatzen dira:
- Txosten mediko edo peritu txostenen bidez
- Laneko alta edo baja-parteen bidez
- Gainera, beste edozein egiaztagiri aurkeztu ahal izango da
(ez da beharrezkoa lesioen argazkiak aurkeztea, ezta erradiografiak ere, mediku-txostenekin nahikoa baita)

## 8. Zer da kalte-ordainik jaso ez izanaren zinpeko deklarazioa?

Eskaera erantsita doan dokumentua da. Horren bidez, erreklamatzaileak bere erantzukizunpean adierazten du ez duela kalte-ordainik jaso, hain zuzen ere erreklamazioan azaldutako arrazoiengatik jasandako kalte-galerengatik, ez aseguru-etxe baten eskutik, ez aseguru-mutualitate baten eskutik ere.

Erreklamazioaren instrukzio-prozesuan erreklamatzaileari erreklamatutako kalte berengatik kalte-ordaina ematen bazaio, Ondare Zerbitzuari jakinarazi beharko dio.

## 9. Zer da lekukoen adierazpena? (I. eranskina)

Erreklamazioan lekuko gisa jardun dezaketen pertsonak dauden kasuetan eskaerarekin batera aurkeztu daitekeen dokumentua da. Adierazpenaren bidez, lekukoak interesdunak salatutako gertaeren deskribapen osoa bere erantzukizunpean egiaztatzen du.

calidad de vida: La indemnización por pérdida temporal de calidad de vida compensa el perjuicio moral particular que sufre la víctima por el impedimento o la limitación que las lesiones sufridas o su tratamiento producen en su autonomía o desarrollo personal.
Grados de perjuicio personal por pérdida temporal de calidad de vida:

- Muy grave
- Grave
- Moderado

**A.2 Secuelas:**

Son secuelas las deficiencias físicas, intelectuales, orgánicas y sensoriales y los perjuicios estéticos que permanecen al término de este proceso.

Las secuelas, se clasificarán según puntuación definida en base a los informes médicos. Por un lado, personal básico y por otro, perjuicio personal particular y excepcional.

Se justifican a través de:
- Informes médicos y/o periciales
- Partes de alta o baja laboral
- Además, podrá aportarse cualquier otro documento acreditativo
(no es necesaria la presentación de fotografías de las lesiones ni radiografías, con los informes médicos es suficiente)

## 8. ¿Qué es una declaración jurada de no haber sido indemnizado/a?

Se trata de un documento incluido en la solicitud por el que la persona reclamante manifiesta, bajo su responsabilidad, que no ha sido ni va a ser indemnizada por ninguna compañía aseguradora ni mutualidad de seguros por los daños y perjuicios sufridos por los motivos expuestos en su reclamación.

Si durante el proceso de instrucción de la reclamación, la parte reclamante es indemnizada por los mismos daños que se han reclamado, deberá notificarlo al Servicio de Patrimonio.

## 9. ¿Qué es una declaración de testigos? (Anexo I)

Se trata de un documento que se puede presentar junto a la solicitud en los casos en los que hay personas que pueden actuar como testigos en la reclamación. Mediante esta declaración, la testigo acredita, bajo su responsabilidad, la descripción completa de los hechos acaecidos denunciados por la persona

interesada.

### 10. Zer da kausalitate erlazioa?

Udalaren zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eta salatzen den kalte edo lesioaren arteko kausa-efektu erlazioa.

### 11. Nola izapidetzen da nire eskaera?

Web-formularioaren edo nahitaezko eskabide-ereduaren bidez erreklamazio-prozedura hasi ondoren, emandako datuak aztertu eta egiaztatuko ditu Ondare Zerbitzuak.

Erreklamazioa onartu ondoren, espedientea irekiko da, eta espediente horren zenbakia jakinaraziko zaio interesdunari eta haren instrukzioa hasiko da. Beharrezkoa bada, eskaeran egindako akatsak zuzentzeko edo eskaera hobetzeko eskatuko da, eta 10 eguneko epea emango da horretarako.

Ondare Zerbitzuak egokitzat jotzen dituen jarduketa guztiak egitea erabakiko du, gertatutakoa ikertzeko eta zehazteko (nahitaezko txostenak eta beharrezkotzat jotzen dituen beste txosten batzuk ere eskatuko ditu horretarako). Nahitaezko txosten teknikoak beharrezkoak dira erreklamazioa izapidetzeko.

Beharrezko dokumentazioa jaso ondoren, entzunaldia emango zaio alderdi interesdunari edo, hala badagokio, haren ordezkariei.

### 12. Zertan datza dokumentazio-errekerimenduak?

Erreklamazioak ez baditu legeria aplikagarrian adierazitako baldintzak betetzen edo ez bada nahitaezko eskabide-eredua aurrez aurre aurkezten, erreklamatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko (eskaera zuzentzea) 10 egun balioduneko epean, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Prozesuaren edozein unetan, eskaera aldatzeko edo hobetzeko eskatu ahal izango zaio interesdunari. Hobetzeko emandako epean hala egiten ez badu, espedientea izapidetzen jarraituko da, harik eta ebatzi arte.

### 13. Zertan datza interesdunari entzunaldia emateko izapideak?

Izapide horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluak

### 10. ¿Qué es la relación de causalidad?

Es la relación causa-efecto entre el funcionamiento de los servicios públicos municipales y el daño o lesión que se denuncia.

### 11. ¿Cómo se tramita mi solicitud?

Una vez iniciado el procedimiento de reclamación, ya sea mediante el formulario web o el modelo de solicitud obligatorio, el Servicio de Patrimonio estudiará y comprobará los datos aportados.

Admitida la reclamación, se abrirá expediente cuyo número se le comunicará a la persona interesada y se iniciará la instrucción del mismo. Si fuera necesario, se solicitará la subsanación de errores o mejora de la solicitud, concediendo un plazo de 10 días.

El Servicio de Patrimonio, acordará la realización de cuantas acciones considere oportunas para averiguar y determinar lo ocurrido (solicitud de informes preceptivos y otros informes que se consideren necesarios). Los informes técnicos preceptivos son necesarios para la instrucción de la reclamación.

Una vez recogida la documentación necesaria, se dará audiencia a la parte interesada o, en su caso, a sus representantes.

### 12. ¿En qué consiste un requerimiento de documentación?

En el supuesto de que la reclamación no reúna los requisitos que señala la legislación aplicable o no utilice el modelo de solicitud obligatorio por el canal presencial, se requerirá al reclamante (subsanación de la solicitud) para que, en un plazo de 10 días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición.

En cualquier momento del proceso se podrá solicitar la modificación y/o mejora de la solicitud a la parte interesada, si en el plazo de mejora concedido así no lo hiciera se proseguirá con la tramitación del expediente hasta su resolución.

### 13. ¿En qué consiste un trámite de audiencia a la parte interesada?

Se trata de un trámite en el que se ejerce el derecho que el artículo 82 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo

erreklamaziogileari prozeduraren instrukzioan ematen dion eskubidea baliatzen da.

**Entzunaldia ematea interesdunari /erreklamaziogileari:**
Prozedura instruitu ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi baino lehen, ondare-erantzukizunaren espedientea jendaurrean jartzen da, gutxienez 10 egun bailoduneko epean eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean erreklamatzaileak, egoki baderitzo, bere eskubideari komeni zaiona alegatu eta egoki iritzitako dokumentuak eta justifikazioak aurkez ditzan.

Común de las Administraciones Públicas otorga a la persona reclamante en la instrucción del procedimiento.

**Audiencia a la persona interesada/reclamante:**
Una vez instruido el procedimiento, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pone de manifiesto del expediente de responsabilidad patrimonial para que en el plazo no inferior a diez 10 hábiles ni superior a 15, la persona reclamante, si así lo considera, pueda alegar lo que a su derecho convenga y presentar los documentos y justificaciones que estime oportunos.

## 14. Noiz ematen zaie entzunaldia inplikatutako enpresei?

**Enpresa kontratistari edo udal zerbitzuaren adjudikaziodunari entzunaldia ematea**: kontrata bat edo zerbitzu-adjudikazio bat tartean dagoenean, entzunaldia emango zaio espedientean pertsonatzeko.

Espedientean inplikatutako **beste enpresa batzuei entzunaldia ematea** (bide publikoa okupatzea, etab.).

## 14. ¿Cuándo se les da audiencia a las empresas implicadas?

**Audiencia a empresa Contratista o adjudicataria de servicio municipal:** cuando está implicada una contrata o adjudicación de servicio, se le concederá audiencia para personarse en el expediente.

**Audiencia a otras empresas implicadas** en el expediente (ocupación de vía pública, etc).

## 15. Nola amaitzen da prozesua?

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi ordezkariaren ebazpenaren bidez emango zaio amaiera espedienteari.

## 15. ¿Cómo finaliza el proceso?

El expediente finalizará por resolución del/de la Concejal/a Delegado/a de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria.

## 16. Zein arrazoi dela eta ezetsi daitezke ondarearen gaineko erantzukizunaren erreklamazioak?

Hauek dira ezesteko arrazoi ohikoenak:

- Kausalitate erlaziorik ez izatea.
- Gertaeren eta kalteen arteko lotura nahiko frogatuta ez geratzea.
- Erreklamatzailearen beraren edo besteren baten esku hartzeak kalteetan eragina izatea.
- Kaltetzat jotzeko bete beharreko baldintzaren bat ez betetzea: benetan gertatua izatea, ekonomikoki balioztagarria, eta pertsona edo pertsona-talde batera mugatua.
- Ezinbesteko arrazoia egotea.

## 16. ¿Por qué motivos podrían desestimarse las reclamaciones de responsabilidad patrimonial?

Causas más habituales de desestimación:

- No existe relación de causalidad.
- No resulta suficientemente probada la consecución de los hechos y los daños.
- Intervención de una tercera persona o de la reclamante en la causa de los daños.
- El daño no cumple alguno de sus requisitos: efectivo, evaluable económicamente, e individualizado.
- Existe fuerza mayor.

## 17. Ebazpena emateko gehienezko eperik ba al dago?

Bai. Ondarearen gaineko erantzukizunarekin lotutako dosierrak 6 hilabeteko epean ebatzi beharko dira. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, ezetsitzat jo ahalko da erreklamazioa, Udalak berariazko ebazpena emateko duen

## 17. ¿Hay un plazo máximo para resolver?

Sí. Los expedientes de responsabilidad patrimonial deberán resolverse en el plazo de 6 meses.
Si no se dicta una resolución en este plazo, podrá entenderse desestimada, sin perjuicio de

betebeharra gorabehera.

la obligación del Ayuntamiento en dictar resolución expresa.